

HARROTASUNEZ BETETAKO ZERBITZU PUBLIKOEN ALDE 2023KO EKAINAK 28

Harrotasunez betetako zerbitzu publikoak bermatzearen garrantziaz jakitun, UGT Zerbitzu Publikoak egunero lan egiten dugu administrazio publikoetan LGTBI eskubideak zaintzeko. Horrexegatik, konpromiso hauek hartzen ditugu geure jarduera esparruan:

1.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBO INKLUSIBOA

LGTBI pertsonen berdintasun eraginkorra bermatzeko neurriak txertatzen ditugu hitzarmen kolektiboetan. Betiere familia baimenek LGTBI kolektiboan sartzen diren familia eta bikoteen definizioak aintzat hartzea bermatuz, hizkuntza inklusiboaren erabilera bermatuz eta osasunaren zaintzari buruzko klausulak, LGTBI pertsonenganako errespetua aintzat hartzen dituztenak, txertatuz.

2.- BALIABIDEAK, INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

Lantokietan LGTBI pertsonen errealitateari eta beharrezkoen buruzko informazioa eta prestakuntza eskaintzen dizkiegu langileen ordezkariari, aukeren berdintasuna eta ez bereizkeria eraginkorra egiten duten neurriak inplementatzeko eta horien jarraipena egiteko xedearekin. Ezinbestekoa da baliabide horiek eskaintzea esku hartu ahal izateko eta, horrela, batez ere protokolo espezializatuen bidez, lan ingurunean LGTBI pertsonen ez bereizkeria bermatzeko.

3.- SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK

Pertsona guztien eskubide eta aukera berberak bermatzen dituen ongizate egoera babesten dugu, eta beraz, funtsezkoa da sentibilizazio, informazio eta LGTBI pertsonak diskriminatzeko edozein bide prebenitzeko kanpainak egitea.

4.- ekainaren 28ko HARROTASUN EGUNAREN ETA MAIATZAREN 17KO IgtbifobiAREN AURKAKO EGUNAREN OSPAKIZUNA

Kultura aldaketa behar dugu, historia ezagutu, informazioa eduki eta LGTBI komunitatearen kontakizun positiboak behar ditugu, erreferenteak izateko eta errealitatea eraikitzeke herritarren benetako eskubideak erabiliz.

5.- LGTBI PERTSONEN LAN BALDINTZAK DUINTZEA

Kultura aldaketa sustatzen dugu administrazio publikoetan eta enpresetan LGTBI pertsonen ibilbide profesionalen garapenean enplegua lortzea eta aukera berdintasuna galarazten dituzten oztopoak desagerrarazteko. Bereziki erreparatzen diegu askotariko bereizkeria faktoreei, hala nola jatorriari, etniari, desgaitasunari, adinari eta beste alderdi batzuei.

6.- BEREIZKERIA LGTBIFOBIKO OROREN AURREKO PREBENTZIOA, JARDUERA ETA BALIABIDEAK

Baliabide publikoekin jarduteko eta koordinatzeko sistema bat eskatzen dugu, aurrekontu eta plantilla espezializatuekin, bereizkeria LGTBifobikoren biktimen prebentzioa, arreta, jarraipena eta berroneratze prozesuak garatu ahal izan ditzaten.

7.- BALIABIDE ETA BITARTEKO SINDIKAL GEHIAGO LGTBI ESKUBIDEETAN AURRERA EGITEKO

Sindikalismoa lan eta gizarte eskubideak babesteko funtsezko espazioa da, eta batik bat berdintasunean oinarritutako garapen jasangarria lortzea ahalbidetzen duen mekanismo kolektiboa. Negoziazio kolektiboan eta elkarrizketa sozialean LGTBI eskubideak zeharka txertatzeko baliabideak eta bitartekoak eskatzen ditugu, LGTBI pertsonen benetako berdintasun eraginkorra bermatzeko neurri egokiak sustatu ahal izateko, LGTBI pertsonenganako bereizkeriaren aurkako Aniztasun Planak eta Berariazko Protokoloak bezalako tresnen bitartez.

8.- HARROTASUNEZ BETETAKO ZERBITZU PUBLIKOAK

Pertsona guztien unibertsaltasuna, eskuragarritasuna eta ekitatea bermatu behar dituzte zerbitzu publikoek, eta horretarako funtsezkoa da zerbitzu publikoetan inbertsio handiagoa egitea. Lehentasunezko zat jotzen dugu LGTBI pertsonen presentzia eta erabateko parte hartzea bermatzea zerbitzu publikoen maila eta sektore guztietan, lan arloko bereizkeria egoerak betikitzen dituzten oztopoak desagerraraziz.

